Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Ingurumen Saila
Departamento de Medio Ambiente

**1773/2011 FORU AGINDUA, urriaren 10ekoa; honen bidez Ziortza-Bolibarko Orua-Olatxuko Egoitzen Plan Partzialaren ingurumeneko eraginaren ebaluazioaren erreferentziako dokumentua egitea ebatzi da.**

**ORDEN FORAL número 1773 de 10 de octubre de 2011, por la que se resuelve formular el Documento de Referencia para la evaluación ambiental del Plan Parcial Residencial Orua-Olatxu en Ziortza-Bolibar.**

*Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura egin behar duten planen zerrenda ezartzen duen EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I A) Eranskinarekin eta Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 3. artikuluarekin bat etorriz, administrazio-prozedura hori egingo dute Hiri Antolamendurako Plan Orokorrek.*

*De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, que establece la lista de planes sometidos al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, y de acuerdo, asimismo, con el artículo 3 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, serán sometidas a este procedimiento administrativo los Planes Generales de Ordenación Urbana.*

*9/2006 Legearen 9. artikuluan eta 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumeneko organoak zehaztuko du, ukitutako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatu eta kontsultatu ondoren, zenbateko irismena, zehaztasuna eta espezifikotasuna duten ingurumeneko iraunkortasunari buruzko txostenek edo ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanak, erreferentzia-agiri bat idatzita. Gainera, dokumentu horrek barne hartuko ditu ingurumeneko irizpide estrategikoak eta ingurumeneko helburuen adierazleak eta kasuan-kasuan aplikatzekoak diren iraunkortasun-printzipioak. Era berean, ingurumeneko organoak informazio- eta kontsulta-modalitateak zehaztu beharko ditu.*

*En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 y en el artículo 6 del Decreto 183/2003, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental o estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Así mismo, el órgano ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.*

*Horrenbestez, Ingurumen arloko Foru Sail honek, EAEko Ingurumena babesteko*

*En consecuencia, este Departamento Foral de Medio Ambiente, en el ejercicio*

*otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 44. artikuluak ematen dizkion eskumenak erabilita eta Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuarekin bat etorriz, ingurumeneko ondorioetarako soilik, eta Ziortza-Bolibarko Orua-Olatxuko Egoitzen Plan Orokorra dela eta, txosten hau eman du:*

*de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y de acuerdo asimismo con el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, formula, a los solos efectos ambientales y con referencia al Plan Parcial Residencial Orua-Olatxu en Ziortza-Bolibar, el siguiente:*

***ZIORTZA-BOLIBARKO ORUA-OLATXUKO EGOITZEN PLAN PARTZIALAREN INGURUMENEKO ERAGINAREN EBALUAZIOAREN ERREFERENTZIAKO DOKUMENTUA***

***DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DEL ”PLAN PARCIAL RESIDENCIAL ORUA-OLATXU EN ZIORTZA-BOLIBAR”***

## *1 AURREKARIAK*

*2011ko ekainaren 28an Ziortza-Bolibarko Udalak Erreferentziako Dokumentua jaulkitzeko eskabidea egin zuen. Dokumentu hori jaulki aurretik eta indarreko legeriak ezarri duenarekin bat, nahitaezkoa da ukituak diren administrazio publikoak eta jende interesatua identifikatzeko eta horiek kontsultak egiteko tramiteari ekitea.*

*Ziortza-Bolibarko Udalak “Orua-Olatzu sektoreko Plan Partziala” dokumentazioa aurkeztu du. Dokumentazio hori Elizondo Arkitektura enpresak idatzita dago eta 2010eko azaroko data du. Dokumentazio horren barruan ondoko hauek daude:*

- *I. liburukia; horren barruan oroitidazkia, antolakuntzaren emaitzako ezaugarrien koadroak, urbanizazioko kostuen ebaluazio ekonomikoa eta plan partziala eratzen duen dokumentazioa daude (azken horren barruan*

## *1 ANTECEDENTES*

*Con fecha 28 de junio de 20111, el Ayuntamiento de Ziortza-Bolibar solicita la emisión del Documento de Referencia. Previamente a la emisión de dicho documento y de acuerdo a la legislación de referencia, es preciso proceder al trámite de identificación y consulta de las administraciones públicas afectadas y al público interesado.*

*El Ayuntamiento de Ziortza-Bolibar aporta la documentación del “Plan Parcial del sector Orua-Olatzu”, la cual ha sido redactada por la empresa Elizondo Arkitektura y fechada en noviembre de 2010. Dicha documentación está formada por:*

- *Tomo I, el cual recoge memoria, cuadros de características resultantes de la ordenación, evaluación económica de los costes de urbanización y documentación constitutiva del plan parcial, formada esta última por*

*dokumentazio grafikoa eta idatzizko dokumentazioa daude).*

- *II. liburukia; horren barruan ordenantza arauemaileak, kudeatzeko sistema eta etapa plana daude, eta irisgarritasuna sustatzeko legeria betetzearen egiaztapena.*

*Plan partzialak Orua-Olatxu sektorean egoitzazko lurzorua zabaltzeari dagokionez Ziortza-Bolibarko AA.SS.etan ezarri den hirigintzako eraikigarritasuna antolatu eta arautu du.*

*Orua-Olatxu Sektoreak 34.712,45 m$^2$-ko azalera du eta gaur egun nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera du. Esparruak, zatirik handienean, balore agrologiko altuko lurrak ditu. Metro horietatik 18.235 m$^2$ egoitzazko erabilera eta jabaritza pribatuko lurzorurako destinatuko dira; zehatzago, planteatu da 10.378 m$^2$ erabiltzea bakoitza lau etxebizitzako 12 eraikin eraikitzeko, hain zuzen ere 924 eta 807 m$^2$ arteko beste horrenbeste lurzatitan. Etxebizitzen tipologia hori (5. erabilera, 2. mota) proiektatu diren bi bideen artean kokatuko da. Beste alde batetik, beste 7.857 m$^2$ bi familiako etxebizitzen 8 eraikin egiteko izango dira. Etxebizitzen tipologia hori (5. erabilera, 1. mota) Markola errekastorik urrunen dagoen tokian kokatuko da. Sektore horretan 9.800 m$^2$-ko eraikigarritasuna planteatu da eta eraiki daitezkeen etxebizitza berriak, guztira, 64 dira.*

*Gainerako azalera, 16.477,45 m$^2$, herri erabilera eta jabaritzako lurzoruetarako izango da. Esparru hau era honetan banatuko da: 2.249,10 m$^2$, bide sare mistoak okupatuko duen saila izango da,*

*documentación gráfica y documentación escrita.*

- *Tomo II, que incluye ordenanzas reguladoras, sistema de gestión y plan de etapas y verificación del cumplimiento de la legislación para la promoción de la accesibilidad.*

*El plan parcial ordena y regula la edificabilidad urbanística prevista en las NNSS de Ziortza-Bolibar para la ampliación de suelo residencial en el Sector Orua-Olatxu.*

*El Sector Orua-Olatxu ocupa una superficie de 34.712,45 m$^2$, terrenos dedicados en la actualidad a uso agrario, los cuales se corresponden en su mayoría con suelos de Alto Valor Agrológico. De estos 18.235 m$^2$ se destinarán a suelo de uso y dominio privado residencial, concretamente se plantea destinar 10.378 m$^2$ a construir 12 edificios de cuatro viviendas cada uno distribuidos en otras tantas parcelas de entre 924 y 807 m$^2$. Esta tipología de vivienda (Uso 5 tipo 2) se ubicarán entre los dos viales proyectados. Por otro lado se destinarán otros 7.857 m$^2$ a la construcción de 8 edificios de viviendas bifamiliares. Esta tipología de vivienda (Uso 5 tipo 1) se ubicarán en el área más alejada del arroyo Markola. Este sector plantea una edificabilidad de 9.800 m$^2$, dando un total de 64 nuevas viviendas a construir.*

*El resto de superficie, 16.477, 45 m$^2$ se destinarán a suelos de uso y dominio público, distribuidos de la siguiente forma: 2.249,10 m$^2$ se ocuparan por la red viaria mixta, 3.141,65 m$^2$ por la red*

*3.141,65 $m^2$ gurpilezkoentzako bideen eta aparkatzeko lekuen sarea, 3.646,90 $m^2$ oinezkoentzako bideak eta 7.439,80 $m^2$ berdegunean eta gune askeak.*

*Lurzati pribatuetan aparkatzeko 138 plaza dira, hau da, aparkatzeko 2 toki baino gehiago etxebizitza bakoitzeko, eta aparkatzeko beste 59 plaza bideei erantsita dauden alde pribatuetan.*

## 2 EGINDAKO KONTSULTAK

*Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulten izapidean, erakunde eta entitate hauei egin zaie kontsulta:*

- *Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusia. Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.*
- *Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusia. Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.*
- *Garraio eta Hirigintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.*
- *Herri Lanen saila Bizkaiko Foru Aldundia.*
- *Kultura saila. Bizkaiko Foru Aldundia.*
- *Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*

*viaria rodada y aparcamientos, 3.646,90 $m^2$ por las vías peatonales y 7.439,80 $m^2$ por zonas verdes y espacios libres.*

*Se plantean 138 plazas de aparcamiento en las parcelas privadas, es decir más de 2 parcelas por vivienda, así como otras 59 plazas de aparcamiento en zonas públicas anexas a los viales.*

## 2 CONSULTAS REALIZADAS

*Durante el trámite de consultas previas establecido en el artículo 6 del* Decreto 183/2003, de 22 de julio, que regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, *han sido consultados los siguientes organismos y entidades:*

- *Dirección General de Montes y Espacios Naturales. Departamento de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.*
- *Dirección General de Agricultura y Ganadería. Departamento de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.*
- *Departamento de Transportes y Urbanismo. Diputación Foral de Bizkaia.*
- *Departamento de Obras Públicas. Diputación Foral de Bizkaia.*
- *Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia.*
- *Dirección de Calidad Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno*

*Vasco.*

| | |
|---|---|
| ▪ *Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Dirección de Ordenación del Territorio, Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritza, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Dirección de Planificación Ambiental, Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Zuzendaritza. Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil. Departamento de Interior. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Kultura saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Departamento de Cultura. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Departamento de vivienda, obras públicas y transportes. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *Osasun Publikoaren Zuzendariordetza. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza.* | ▪ *Subdirección de Salud Pública. Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco.* |
| ▪ *URA. Uraren Euskal Agentzia.* | ▪ *Agencia Vasca del Agua, URA.* |

- *EEE Energiaren Euskal Erakundea.*
- *IHOBE (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa). Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.*
- *Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa. Ingurumenaren eta Landagune eta Itsas Ingurunearen Ministerioa.*
- *Lea-Artibaiko Mankomunitatea.*
- *Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.*
- *EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna.*
- *Landabizkaia*
- *Aulestiko Udala.*
- *Berrizko Udala*
- *Mallabiko Udala.*
- *Markina-Xemeingo Udala.*
- *Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaizko Udala.*
- *Ekologistak Martxan.*
- *IZATE Ingurumen Elkartea.*

*Modu berean, 2011ko uztailaren 10ean iragarkia argitaratu zen prentsan interesatua zegoen jendea identifikatu eta haiei galdetzeko. Espedientearen agiriak horien esku jarri ziren Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Foru Sailaren egoitzan zein haren web orrian (http://www.bizkaia.net./evaluacion/).*

- *Ente Vasco de la Energía, EVE.*
- *IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.*
- *Confederación Hidrográfica del Cantábrico. Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino.*
- *Mancomunidad Lea-Artibai.*
- *Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.*
- *EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna.*
- *Landabizkaia.*
- *Ayuntamiento de Aulesti.*
- *Ayuntamiento de Berriz.*
- *Ayuntamiento Mallabia.*
- *Ayuntamiento de Markina-Xemein.*
- *Ayuntamiento de Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz.*
- *Ekologistak Martxan.*
- *Asociación Medioambiental Izate.*

*Así mismo, con fecha 10 de julio de 2011, se publicó anuncio en prensa para identificación y consulta al público interesado, poniendo a disposición de éste la documentación del expediente tanto en la sede del Departamento Foral de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia como en su página web*

*Egindako galderen inguruan jasotako erantzunak kontuan izan beharko dituzte Busturiako HAPOren eta IEBEren azterlana egiterakoan.*

*Ezarritako epea amaituta, IEBEren azterlanak kontuan hartu beharreko alderdien inguruan erakunde hauek emandako erantzunak jaso dira:*

- *Herri Lan eta Garraio Saila. Bizkaiko Foru Aldundia: Errepideen arloko eskumenak dituen erakundeak uste du plan partzialaren proposamena egokia dela.*
- *IHOBE: plan partzialaren esparruan ez dago ustez kutsatuta egon daitezkeen lurren inbentarioaren barruan sartuta dagoen lurzatirik (165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa).*
- *Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza: ingurumeneko eraginaren ebaluazioko prozedurari lotuta egon daitezkeen etorkizuneko proiektuetarako markoa era ditzaketen proposamenak identifikatu ditu. IEABren prozeduran bete behar diren irizpideak jaso ditu, hau da, ondoko hauei lotuta daudenak: uren kutsadura; herri jabaritza hidraulikoa; hondakinak; zarata eta biodibertsitatea.*
- *Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza: plan partziala egiterakoan aintzat hartu beharreko planak adierazten*

*(http://www.bizkaia.net./evaluacion/). Las respuestas recibidas a las consultas realizadas deberán tenerse en cuenta en la elaboración de la Modificación del PGOU de Busturia y de su estudio de ECIA.*

*Finalizado el plazo estipulado han sido recibidas las respuestas de las siguientes entidades, que señalan aspectos a contemplar en el estudio de ECIA:*

- *Departamento de Obras Públicas y Transportes. Diputación Foral de Bizkaia: desde la competencia sectorial de carreteras consideran adecuada la propuesta del plan parcial.*
- *IHOBE: En el ámbito del plan parcial no existen parcelas incluidas en el inventario de suelos potencialmente contaminados (*Decreto 165/2008, de 30 de septiembre*).*
- *Dirección de Calidad Ambiental. Gobierno Vasco: identifica las propuestas que pueden constituir el marco para futuros proyectos sometidos al procedimiento de evaluación de impacto ambiental. Recoge directrices a contemplar en el procedimiento de ECIA referentes a la contaminación de aguas, al Dominio Público Hidráulico, a los residuos, al ruido y a la biodiversidad.*
- *Dirección de Planificación Ambiental. Gobierno Vasco: indica diferentes planes a considerar en la elaboración del plan parcial, así*

*ditu, eta baita integratu behar diren irizpide estrategikoa, berbarako ondoko hauek: era zurrun eta zorrotzean egoitzaren arloko benetako beharrizanak aztertzea horrela beharrizanari gaindimentsiorik gabe erantzuteko; dagoeneko artifizializatuta dauden lurrei lehentasuna ematea eta nekazaritza eta abeltzaintzako eta lur naturalak zaintzea, eta ezarri du aldea balore estrategiko altuko lurretakoa dela; lurraren zigilaketa murriztea; bitarteko hidrikoak zaintzea ur hornikuntza eta emarien arazketa bermatuz; ondo artatu den landaretza zaintzea; __biodibertsitatearen galera etetea eta paisaia antolakuntzan integratzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin bat.*

*como criterios estratégicos a integrar como son; analizar de forma rigurosa las necesidades residenciales reales a dar respuesta evitando el sobredimensionamiento, priorizar el uso de suelos ya artificializados preservando el suelo agrario y natural e indica que toda la zona pertenece a suelos de Alto Valor Estratégico, reducir el sellado del suelo, proteger los recursos hídricos garantizando el suministro de agua y la depuración de efluentes, preservar la vegetación bien conservada, detener la perdida de biodiversidad e integrar el paisaje en la ordenación de acuerdo al Convenio Europeo del Paisaje.*

- *Energiaren Euskal Erakundea: eragingarritasun energetiko hobea lortzeko eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko plan partzialean burutu behar diren alderdiak jaso ditu; neurri horiek hala urbanizazioan nola eraikuntza proiektuetan hartu behar dira kontuan.*

- *Ente Vasco de la Energía: Recoge las consideraciones a implementar en el plan parcial de cara a una mayor eficiencia energética y el aumento del uso de energías renovables, las cuales se deben considerar tanto en la urbanización como en los proyectos de edificación.*

- *Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa: esan du ez dagoela eragozpenik bere arloari dagokionez.*

- *Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia: indica que no existen objeciones al respecto.*

- *Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia: Ingurumen Sail honetara 2011ko abuztuaren 9an igorri zen dokumentuaren arabera plan partzialaren esparruan ez da aplikatu behar ez nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako ALP*

- *Departamento de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia: En documento remitido a este Departamento de Medio Ambiente en fecha 9 de agosto de 2011 indica que en el ámbito del plan parcial no es de aplicación ni el PTS*

*eta ez bisoi europarraren Kudeaketa Plana. Aurrerago, 2011ko irailaren 6ko dokumentuan, esaten du 3,22 Ha-ko esparru bat dagoela bisoi europarrarentzat interes berezikoa dena Kudeaketa Plana aplikatuz (118/2006 Foru Dekretua). Hori ez ezik, faunako beste espezie batzuen presentziaren berri ematen du eta erkidegoarentzat interesa duten habitatak eta Natura 2000 Sareko espazioak identifikatzen ditu.*

- *Kultur Ondareko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza: Santio Bidea identifikatu du multzo monumental moduan (EHAA, 2010/09/06) eta esaten du Bolibarko 5 zubia tokiko intereseko ondasuna dela.*

- *Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza: Zuzendaritza horrek Ziortza-Bolibarko AA.SS.en onespenaren esparruan egin zuen txostenean agertzen diren agindua jaso ditu, hau da, EAELABtik igaro zirenean (erakunde horren 2008ko maiatzaren 22ko Osoko Bilkuran; 2HI-007/08-P05); esaten du Markola errekastoaren ertzetako landaretzaren gaineko eraginen aurreikuspena larria dela eta landaretza horri dagokionez aurrearretazko neurriak eta neurri zuzentzaileak eta konpentsaziozkoak hartu behar direla, adibidez ubidearen inguruan zuhaixken esparru bat sortzea, interesa duten aleak identifikatzea eta babestea, birlandaketak egiteko espezie autoktonoak erabiltzea, espezie*

*Agroforestal, ni el Plan de Gestión del Visón Europeo. Posteriormente en documento del 6 de septiembre de 2011 refiere la presencia de 3,22 Ha de área de interés especial para el visón europeo, indicando la aplicabilidad del Plan de Gestión (Decreto Foral 118/2006), identificando así mismo la presencia de otras especies faunísticas, hábitats de interés comunitario y espacios de la Red Natura 2000.*

- *Dirección de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco: Identifica el Camino de Santiago como Conjunto Monumental (BOPV 06/09/2010) y el Puente Bolívar 5 como bien de interés local.*

- *Dirección de Biodiversidad y participación ambiental. Gobierno Vasco: Recoge las indicaciones contenidas en el informe elaborado por esa Dirección en el marco de la aprobación de las NNSS de Ziortza-Bolibar a su paso por la COTPV en el pleno del 22 de mayo de 2008 (2HI-007/08-P05); previsión de impacto severo sobre la vegetación de ribera del arroyo Markola (), adopción de medidas preventivas, correctoras y compensatorias de dicha vegetación como crear franja arbustiva en torno al cauce, identificar y proteger ejemplares de interés, uso de especies autóctonas en la revegetación, control de especies invasoras, así mismo incluir en el planeamiento un plan de restauración y dar cumplimiento al Plan de Gestión del Visón Europeo. Se indica que estas medidas deben ser contempladas en*

*inbaditzaileak kontrolatzea eta, halaber, plangintzaren barruan lehengoratzeko plan bat sartzea eta Bisoi europarraren Kudeaketa Plana betetzea. Esaten da neurri horiek plan partzialaren barruan sartu behar direla. Halaber, erantzun horretan IEAB idazteko ingurumeneko informazioa ematen da eta esaten da planaren esparruak eraginak izango dituela "Artibai ibaiaren EIA", (2010eko abenduaren 23ko Aginduaren bidez hasieran onetsi dena); tramitazio fasean dago. Esaten du luzetara zabaldu behar dela besteak beste Markola errekastoarekin, hain zuzen ere alde hori ondo artatu delako eta bertan erkidegoarentzat lehentasuna duen habitata dagoelako (91E0*: kantauriar isurialdeko haltzadia) eta interes bereziko aldea eratu behar dela bisoi europarrarentzat eta baita bertako karramarroarentzako aldeko habitata. Oro har ibaiaren arloko habitata zaintzeko neurriak proposatu dira, berbarako gutxieneko distantziak eta garatu behar den lehengoratzearen tipologia. Beste alde batetik, planaren esparruan egon dauden landaretza eta faunako espezien berri ematen da.*

*el plan parcial. Igualmente en dicha respuesta se aporta información ambiental para la redacción del estudio de ECIA, se indica la afección del ámbito del plan al "ZEC del río Artibai", (aprobado inicialmente por* Orden de 23 de diciembre de 2010*), en proceso de tramitación y ampliado longitudinalmente entre otros con el arroyo Markola debido al buen estado de conservación del mismo, a la presencia de hábitat de interés comunitario prioritario (91E0*: Aliseda cantábrica) y constituir un área de interés especial para el visón europeo además de un hábitat favorable para el cangrejo autóctono. Se proponen medidas tendentes a mantener el hábitat fluvial como retiro mínimo y tipología en la restauración a desarrollar. Se indican por otro lado especies de flora y fauna presentes en el ámbito del plan.*

- *Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza: adierazi du ez dela nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerako lurzorurik ukitzen.*

- *Dirección de Desarrollo Rural y Litoral: Indica que no se afecta a suelo agrarios.*

- *Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundia: Zerrenda baten eman ditu izaera arkitektonikoko ondare*

- *Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia: Relaciona los elementos*

*kultural higiezineko elementuak, hau da, jarduketaren esparruan dauden elementu kalifikatu edo inbentariatuak.*

*pertenecientes al Patrimonio Cultural inmueble de carácter arquitectónico calificados o inventariados presentes en el entorno del ámbito de actuación.*

*Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko araubidea xedatzen duen apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 9. artikulua betetze aldera, ukitutako administrazio publiko gisa erantzun duten erakundeak identifikatu dira. Agerian dago erreferentzia-agiri honetako edukia publikoa dela.*

*En cumplimiento del mandato del artículo 9 de la* Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de determinados planes y programas en el medio ambiente, *quedan identificados los organismos consultados que han emitido respuesta como* Administraciones Públicas Afectadas, *haciendo constar que el contenido del presente Documento de Referencia es público.*

*Aurkeztutako dokumentazioa eta kontsulten izapidean jasotako erantzunen edukia aztertu ostean eta ukitutako eremua bisitatu ostean, erreferentzia-agiri hau egin da.*

*Una vez analizada la documentación aportada, el contenido de las respuestas recibidas durante el trámite de consultas y girada visita al ámbito afectado, se emite el presente Documento de Referencia.*

## *3 IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK ETA PLANARI APLIKA DAKIZKIOKEEN INGURUMEN HELBURU ETA IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK*

## *3 PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS Y CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS APLICABLES AL PLAN*

*Lurralde plangintzak eta berau garatzeko estrategiek erabat errespetatuko dituzte garapen iraunkorraren printzipioak. Printzipio horiek modu orekatuan integratu behar dituzte ekonomia, gizarte, ingurumen eta kultur arloak.*

*La planificación territorial y las estrategias de desarrollo del mismo, respetará plenamente los principios del desarrollo sostenible, los cuales deben incluir una integración equilibrada de la dimensión económica, social, medioambiental y cultural.*

### 3.1.- IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK.

### 3.1 PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD.

*Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira lege eta dokumentu hauetan jasotako iraunkortasun printzipioak eta ingurumen helburu eta irizpide estrategikoak.*

*Se tomarán como base fundamental para la elaboración del plan los principios de sostenibilidad, objetivos y criterios ambientales estratégicos contenidos en:*

- *Ingurumen arloko Ekintzarako Europako VI. Programa (2002-2012).*
- *Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta EAEko Ingurumenari buruzko III. esparru-programa (2011-2014).*
- *Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaia 21 Egitasmoa.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea. 10, 23, 25, 28, 30, 69 eta 83. artikuluak.*
- *2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. 3. artikulua, Garapen Iraunkorrari buruzkoa.*
- *2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena. 2. eta 10. artikuluak.*
- *Tokiko Bizitzan Gizon eta Emakumeen Berdintasuna lortzeko Europako Gutuna. 24. artikulutik 28.era.*
- *16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa. 2 artikulua.*
- *42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa. 2 artikulua.*
- *1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. 3 artikulua.*

- *El* VI Programa de Acción comunitario en materia de medio ambiente *(2002-2012).*
- *La* Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible *2002-2020 y el III Programa Marco Ambiental 2011-2014.*
- *El* Programa Bizkaia 21 *de la Diputación Foral de Bizkaia.*
- *La* Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco. *Artículos 10, 23, 25, 28, 30, 69 y 83.*
- *La* Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. *Art. 3, Principio de Desarrollo Sostenible.*
- *El* Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo. *Artículos 2 y 10.*
- Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local. *Art. 24 a 28.*
- *La* Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco. *Artículo 2.*
- *La* Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad. *Artículo 2.*
- *La* Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas. *Artículo 3.*

- *17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa. 5. eta 6. artikuluak.*
- *2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa. (3. art., 5., 6. eta 7. idatz-zatiak).*
- *7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa. (3. art.).*
- *Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaiari buruzko Legearen aurreproiektua (1 eta 4. artikuluak).*

- *La* Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria. *Art. 5 y 6.*
- Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible. *(Art. 3, apartados 5, 6 y 7).*
- Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco. *(Art. 3).*
- Anteproyecto de Ley del Paisaje del País Vasco. *(Art. 1 y 4).*

### 3.2.- INGURUMEN HELBURUAK.

*"Orua-Olatzuko sektoreko Plan Partzialak" ingurumenaren arloko ondoko helburu hauek izan behar ditu:*

- *Lurraldearen erabilera orekatua lortzea. Udalerri trinkoa eta erabilera mistoa izango duena sustatzea. Eraikuntzari dagokionez, proposamen zentzuzkoak, biztanleen beharrizanak eta etxebizitzen eta landaguneen birgaikuntza bateragarri bihurtzeko, ingurumena babesteko eta bitarteko ekonomikoen zentzuzko erabilera burutzeko.*
- *Natur baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea. Lur naturalaren kontsumoa gutxitu behar da.*
- *Landa ingurunea babestea, nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza barne hartuta, laborantza-jarduerari lotuta dagoen lurzoruaren erabilera*

### 3.2 OBJETIVOS AMBIENTALES.

*El "Plan Parcial del sector Orua-Olatzu" deberá integrar los siguientes objetivos de índole ambiental:*

- *Lograr un uso equilibrado del territorio. Fomentar el municipio compacto y de usos mixtos. Propuestas de construcción racionales para conciliar la atención a las necesidades de la población, la rehabilitación de las viviendas y de los núcleos urbanos, la protección al medio ambiente y el uso racional de los recursos económicos.*
- *Fomentar el consumo responsable de los recursos naturales. Minimizando el consumo de suelo natural.*
- *Proteger el medio rural, fomentando un uso continuado y adecuado del suelo ligado a la actividad agraria, abarcando lo agrícola, lo ganadero*

*jarraitua eta egokia sustatuz.*

*y lo forestal.*

- *Ur-masen egoera egokia lortzea (kimikoa eta ekologikoa) eta hondamena eragoztea, modu ezin hobean pertsonen garapen eta bizi-kalitaterako eta ekosistemen egoerarako laguntza emateko.*
- *Arrisku naturalak eta teknologikoak ez eragitea edo, halakorik balego, ezabatzea, batez ere prebentzioa uholdeen eta urak eragindako hondamenen aurrean.*
- *Jendearen mugikortasun eskaria kudeatzea jendea oinez, bizikletaz eta taldeko garraioan ibiltzera bultzatuz.*
- *Energia aurreztea, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak erabiltzea sustatzea.*
- *Hondakinak sortzea gutxitzea eta horien kudeaketa hobetzea, harik eta tratatu gabeko hondakinik gabeko maila lortu arte.*
- *Soinu eta/edo argi kutsadura ohartematea, zaintzea eta murriztea, giza osasunean, ondasunetan edo ingurumenean eragin ditzakeen kalteak saihesteko eta murrizteko.*
- *Natur ingurunearen gaineko presioa geraraztea. Biodibertsitatea eta geodibertsitatea ez galtzeko modua egitea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuta eta berrezarrita.*

- *Alcanzar un buen estado de las masas de agua (químico y ecológico) e impedir su deterioro para contribuir de modo óptimo al desarrollo y calidad de vida de las personas y al buen estado de los ecosistemas.*
- *No provocar o en su caso, eliminar los riesgos naturales y tecnológicos, en especial prevención frente a inundaciones y catástrofes producidas por el agua.*
- *Gestionar la demanda de movilidad de las personas reconduciendo el reparto modal hacia el caminar, la bicicleta y el transporte colectivo.*
- *Fomentar el ahorro de energía, la eficiencia energética y el uso de energías renovables.*
- *Reducir la generación de residuos y mejorar su gestión hasta alcanzar un nivel de vertido cero de residuos no tratados.*
- *Prevenir, vigilar y reducir la contaminación acústica y/o lumínica, para evitar y reducir los daños que de ésta pueden derivarse para la salud humana, los bienes o el medio ambiente.*
- *Detener la presión sobre el medio natural. Evitar la pérdida de diversidad biológica y/o geológica, mediante la protección y restauración del funcionamiento sostenible de los hábitats y ecosistemas.*

- *Paisaiaren kalitatea eta kultur ondarea babestea edo, hala badagokio, hobetzea.*

- *Berotegi efektuko gasen igorpena mugatzea eta klima aldaketara egokitzeko modua kudeatzea, aurrez ikusitako eraginen aurrean dugun ahultasuna minimizatuta.*

*Planak ingurumeneko helburu espezifikoak hartu ahalko ditu, adierazitako ingurumeneko helburuetan oinarrituta. Nolanahi ere, ingurumeneko helburu espezifiko horiek eremuko ingurumeneko diagnostikoari eta idatz-zati honetan adierazitako ingurumeneko helburu guztiei erantzungo diete. Modu hierarkizatuan azalduko dira, duten garrantzi erlatiboaren arabera, eta betetzen direla egiaztatzeko bidea ematen duten adierazleak erantsiko zaizkie.*

### 3.3.- INGURUMEN IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK.

*Ondoren azaltzen diren ingurumeneko irizpideak koherenteak dira adierazitako ingurumen helburuekin, eta estrategikotzat hartu behar dira:*

1. *Egoitza, ekipamendu eta azpiegituren arloetako garapenaren dimentsioak, tipologia eta banaketa proposamenak bidezkotzea.*

   *Zentzu horretan, aintzat hartu beharko da lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 3.c eta 14.2 artikuluetan jasotakoa, etxebizitza hutsak zaharberritu, berrerabili eta erabiltzeari dagokionez. Aukera hori lehentasuna izan daiteke hazkunde berrien aurrean. Halaber, proportzio zuzena mantendu beharko da hirigintza-hazkundearen eta*

- *Proteger o en su caso mejorar la calidad paisajística y el patrimonio cultural.*

- *Limitar las emisiones de Gases de Efecto Invernadero y gestionar la adaptación al cambio climático minimizando nuestra vulnerabilidad ante los impactos previstos.*

*El plan podrá adoptar objetivos ambientales específicos basándose en los objetivos ambientales señalados. En todo caso, estos objetivos ambientales específicos responderán al diagnóstico ambiental del ámbito y a cada uno de los objetivos ambientales señalados en este apartado. Se expondrán de forma jerarquizada en función de su importancia relativa y deberán acompañarse de indicadores que permitan verificar su cumplimiento.*

### 3.3 CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS.

*Los criterios ambientales que se señalan a continuación son coherentes con los objetivos ambientales señalados y deben considerarse estratégicos:*

1. *Justificar el dimensionamiento, tipología y distribución de la propuesta de desarrollo residencial, de equipamientos y de infraestructuras.*

   *En este sentido se deberá tener en consideración lo recogido en los artículos 3.c y 14.2 de la Ley 2/2006, de suelo y urbanismo, en referencia a contemplar la rehabilitación, reutilización y uso de viviendas vacías como opción preferente sobre el nuevo crecimiento, así como a guardar directa proporción entre el crecimiento urbanístico y el crecimiento*

*biztanleriaren hazkundearen artean.*

2. *<u>Hiri egitura trinkoa, konpaktua eta erabilera mistoak</u> dituena aurkeztea, udalerriak etxebizitzaren arloan dituen beharrizanei erantzuteko gauza izango dena; hori "Ziortza-Bolibarko udal mugarteko Plangintzako Arau Subsidiarioak" dokumentuari buruzko ingurumeneko behin betiko eraginaren txostena formulatzea ebatzi duen 2008ko maiatzaren 12ko 912. zenbakiko Foru Aginduaren ondorioetatik hirugarrenean ezarri dena aintzat hartuta egingo da.*

   *Lur naturalaren kontsumoa ahalik eta gehien gutxitzeko bideak bilatuko dira eta dagoeneko artifizializatuta dauden lurrei lehentasuna emango zaie. Halaber, ekidin egingo da faunaren eta biztanleen mugikortasuna eragotziko duten azalera pribatu itxien sorkuntza.*

   *Ildo horretatik Bizkaia 21 Egitarauko (2011-2016) 3.1.5 eta 3.1.6 helburuak hartuko dira kontuan, eta baita horien barruko jarduketak ere (3.1.5.A, 3.1.5.B eta 3.1.6.C).*

3. *<u>ES2130011, Artibai Ibaia</u> esparru naturalerako planteatu diren artapen helburuak bermatuko dira; esparru hori Natura 2000 Sarekoa da. Esparrua erkidegoarentzat interesa duen toki (EIT) adierazi zen Europar Batzordeko abenduaren 7ko 2004/813/CE Erabakiaren bidez eta gaur egun artapen bereziko alde (EBA) moduan adierazteko proposamena dago. Esparru hori era partzialean ukitzen da.*

4. *Plan partziala <u>energiaren</u>*

*poblacional.*

2. *Fomentar una <u>estructura urbana densa, compacta y de usos mixtos</u>, para dar respuesta a las necesidades reales de vivienda del municipio, considerando lo indicado en la conclusión tercera de la* Orden Foral número 912, de .12. de mayo de 2008, por la que se resuelve formular Informe Definitivo de Impacto Ambiental sobre las "Normas Subsidiarias del Planeamiento del término municipal de Ziortza-Bolibar".

   *Se buscara minimizar el consumo de suelo natural, priorizando la utilización de suelos ya artificializados, y evitando la creación de superficies privadas cerradas que dificultan la movilidad faunística y poblacional.*

   *En este sentido se deberá considerar los objetivos 3.1.5 y 3.1.6 del Programa Bizkaia 21 (2011-2016) y sus actuaciones (3.1.5.A, 3.1.5.B y 3.1.6.C).*

3. *Garantizar los objetivos de conservación planteados para el espacio natural <u>ES2130011, Río Artibai</u>, perteneciente a la red natura 2000. Dicho espacio fué declarado Lugar de Interés Comunitario (LIC) mediante la Decisión 2004/813/CE, de 7 de diciembre, de la Comisión Europea y en la actualidad existe una propuesta de declaración cómo Zona de Especial Conservación (ZEC), la cual se ve afectada por el plan parcial.*

4. *El plan parcial se desarrollará en base*

*aurrezpenaren eta energia berriztagarrien erabileraren sustapenaren irizpideetan finkatuta garatuko da eta lehentasuna izango du autohornikuntzak.*

5. *Ingurumen azpiegiturak. Plangintza proposamenekin batera, beharrezko ingurumen azpiegiturak aurkeztu beharko dira, hala nola hondakin urak garbitu eta araztekoak, hondakinak kudeatzeko beharrezko azpiegiturak, ur hornikuntzarenak eta abar. Azpiegitura horiek baloratu egin beharko dira neurriari dagokionez eta aurreikusitako hirigintza-hazkundeari lotuta. Etorkizunean azpiegitura horiek funtzionaltasuna edukiko dutela bermatu beharko da.*

6. *Garraioa eta mugikortasuna. Sektorean oinez ibiltzea eta/edo ibilgailu pribatua ez diren beste garraio mota batzuen erabilera sustatuko da; zerupeko aparkalekuen kasuan nahitaezko gutxienekora doituko dira eta ibilgailu pribatuaren erabileraren aurkako jarrera zalduko da. Ingurumeneko organo honen ustez gehieneko balore moduan hartu beharko litzateke aparkaleku bat etxebizitzako eta, ahal den neurrian, horiek lurpekoak izan beharko lukete. Uste da ez dela egokia bideei erantsita aparkaleku publikoak sortzea, horrek ibilgailu pribatuaren erabilera sustatuko lukeelako.*

7. *Okupatuko den lurraren balore agrologikoa altua da, nahiz eta aldez aurretik lurzoru urbanizagarriaren sailkapena eduki eta, ondorioz, ezin zaion nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako ALP aplikatu. Hori gorabehera eta, gutxienez, udalerriak*

*a criterios de ahorro energético y fomento del uso de energías renovables, priorizando el autoabastecimiento.*

5. *Infraestructuras ambientales. Las propuestas de planificación deberán acompañarse de las necesarias infraestructuras ambientales tales como saneamiento y depuración de aguas residuales, infraestructuras necesarias para la gestión de residuos, abastecimiento de agua, etc. Dichas infraestructuras deberán ser valoradas en cuanto a su dimensionamiento en relación al crecimiento urbanístico previsto, garantizado a futuro su funcionalidad.*

6. *Transporte y movilidad. Fomentar el acceso a pie al sector y/o mediante otros medios de transporte distintos al coche privado, los aparcamientos en superficie se ajustarán al mínimo imprescindible desincentivando el uso del coche privado. Desde este órgano ambiental se considera que debieran adoptarse como valor máximo un aparcamiento por vivienda, los cuales a ser posible deberán ser subterráneos. Se considera inadecuado crear aparcamientos públicos anexos a los viales, ya que ello fomentaría el uso del vehículo privado.*

7. *El valor agrológico del suelo a ocupar es alto, si bien al hallarse clasificado como suelo urbanizable previamente, no le es de aplicación el PTS Agroforestal. No obstante y de cara a mejorar o cuando menos conservar la capacidad agraria del municipio, se debe evitar en*

*nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzaren arloetan dituen gaitasunak artatzearen ondoreetarako saihestu egin behar da, ahal den neurrian, ekoizteko lurraren galera eta, horretarako, ahal den neurrian murriztu egin beharko da ukituko den azalera, hau da, 2. irizpidean ezarri dena aintzat hartuta eta beharrezko neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsaziozkoak ezarri beharko dira.*

8. *Markola errekastoaren egoera ekologikoa zaintzea eta/edo hobetzea. Horretarako proposatu den egoitzazko garapenak eragingo dituen hornikuntza eta arazketa beharrizanak baloratu behar dira eta beharrizan horiek erabat asetuta geratuko dira.*

